

Lana hobetu, kultura hobetu



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Bizi garen tokiko egoera sozioekonomikoak harreman zuzena du bertoko (Meatzaldea-Ezkerraldea) pertsonen kultur mailarekin. Azken aldian herriko gazte batzuei entzun diet bere gogoeta eta kezkak partekatu eta garatzeko falta dutela gure inguru hurbilean. Kultur edo sozial arloan profesionalki edo boluntarioki ari diren gazteak dira, herrian guztiz integratuta daudenak, baina beren ideia eta pentsamenduak partekatzeke ingururik topatzen ez dutenak.

Kanpora joan eta Euskal Herriko beste eskualdeetako jendearekin izandako harremanetan bestelako lasaitasun bat, gaiak lantzeko giro goxoago bat sumatzen dutela diote. Guk ere hala sentitu genuen gazteago ginela herritik kanpo egindako hasierako joan-etorrietan.

Nekazaritzatik meataritzara eta industriara pasatu zen eskualde baten seme-alabak gara, industria gainbehera etorri eta merkalguneetan langile-erosle bihurtu direnak. Eskualdean dauden kulturgune publikoak nahiko berriak dira eta besteren artean gure herriak ez du oraindik kultur ekintzak egiteko arretorik. Horrela hemengo kultur programazioa betidanik aski ahula izan da eta normala denez orokorrean jendeak ez du izan antzerki, dantza, literatura edo musika emanalditara joateko ohiturarik.

Beraz egoera honetan, hizkuntza batean edo bestean eta egiten den kultur jardueraren erregistroa edozein izanik ere, sarri gertatzen da zerbait antolatu eta oso ikusle gutxi agertzea. Orain arte hemen ez da egon kultur sortzaile edo jasotzaile *corpus* sendorik, hortik gurean zein zaila den kultur gaiak partekatu, go-goetatu edo edozein sormen lan hastea.

Dudarik gabe herriko sare eta instalazio komunitarioek garrantzia dute kulturgintzaren berpiztean, baina arlo pertsonalean norberaren bizi baldintzekiko lasaitasunak ondorio zuzena du norberak kultura jasotzeko duen aukeretan.

Nola joango da gurean norbait kultur jarduera batera goizetik gauera lanean baldin badago?

Nola garatuko ditu pertsonak bere ideia eta kezkak norbere haurrak edo zaharrak zaintzeko denborarik ere ez badu? Gurean kultura garatuko bada instalazioak behar ditugu, baina beharrezkoago dugu pertsonen beharrak errespetatuko dituen lan eredu bat. Familia zaintzeko denbora izan eta norbere burua, motibazio eta kezkak garatzeko aukera emango diguna. Meatzaldea-Ezkerraldean asko gara, jatorri askotatik gatzoz eta asko dugu esateko. Bitartean telebista eta taberna izango dira eskualdeko kulturaren oinarri. ●

Dirdirak eta fantasiak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Ez dakit ARGIA foro egokia den nire fantasia (kasik) erotiko baten berri emateko. Hala ez bada, barkatu. Akaso film (estatubatuar) gehiegi ikusi ditut eta, ondorioz, irudi mitifikatua dut publizitateko kreatibo deitzen diren profesionalen gain. Baliteke. Kontua da nik ere nahiko nukeela parte hartu halako prozesu apartu batean, beste enpresa baten enkarguz, kanpaina bat diseinatzeke nahiz lelo erakargarri bat asmatzeko.

Izan ere, ororen gaintetik, nire hiriko bi kirol talderik ezagunenak enpresak dira: *Alaves* eta *Baskonia*. Enpresa

bakarrean bilduak dira biak: *Grupo Baskonia-Alaves Group*. Saskibaloia- ren kasuan, *Kirolbet* da babesle nagusia; futbolaren kasuan, berriz, *Betway*. Funtzio publikoa betetzen omen duten etxeko taldeen elastikoetan apustu-etxeak ageri dira. Sosak, sosen gainean. Txin-txin.

Get ready to shine leloa aukeratu dute Baskoniako bazkideen kanpaina egiteko aurten. Dirdira maite dugu, nonbait. Eta kirolez mozarrotutako fikzio epikoa ere bai. Ez didazue ukatuko, beraz: (hagitz) onak dira kreatiboak gure fantasiez ari direnean. ●